



Andoaingo Udala



---

## **Aranaztegi industriaguneak komon publikoa izango du hemendik aurrera**

**Andoainen, 23-11-22.-** Zerbitzu publikoak handituz doa Andoaingo Udala, eta horien baitan kokatzen da Aranaztegi industriagunean, Leizotz auzoan, hemendik aurrera egongo den zerbitzu berria. Komon publikoa egokitu da herritar guztientzat, eta erabilgarri egongo da hemendik aurrera hala nahi duenarentzat.

Paseoan ibiltzeko gune aproposa da eremu hori, ikusi besterik ez dago bertatik egunerokoan igarotzen den herritar andana. Halaber, kontuan hartzekoa da industriagunera bertaratzen diren kamioilari eta garraiolari kopurua handia dela.

Andoaingo Udalak zerbitzu publikoak indartzen jarraitzeko bidean apustu sendoa egiten jarraituko du etorkizunean ere.